

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

4348

264/2020 EBAZPENA, urriaren 6koa, Debagoieneko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerentearena, zeinaren bidez Miren Edurne Marañón Guesalaga andreak zituen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Debagoieneko ESiko Arrasateko Lehen Mailako Arretako unitateburu lanpostuaren eginkizunen esleipena baliogabetzen diren, berak hala eskatuta.

148/2017 Ebazpenaren bidez, Miren Edurne Marañón Guesalaga andrea izendatu zuteen Arrasateko Lehen Mailako Arretako Unitateburu Osakidetzako Debagoieneko ESlan.

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak ikusita, Zuzendaritza Nagusi honek

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Miren Edurne Marañón Guesalaga andreari Arrasateko Lehen Mailako Arretako Unitateburu lanpostuari dagozkion eginkizunak esleitu izana baliogabetzea, berak hala eskatuta, Osakidetzako Debagoieneko ESlan; eta eskerrak ematea egindako lanagatik.

Bigarrena.– Ebazpen honek 2020ko azaroaren 15etik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Interesdunari Ebazpen honen berri ematea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkez dakioke Osakidetzako zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Arrasate, 2020ko urriaren 6a.

Debagoieneko ESiko zuzendari gerentea,
LUISA M.^a DIEZ AZURMENDI.